



Aurreikuspenen arabera, 265.000 ibilgailu igaroko dira Irungo ordainlekutik uztailaren 27tik 31ra bitartean

Irungo eta Zarauzko ordainlekuetako bide guztiak prest egongo dira auto-ilarak murrizteko



Bidegi AP-8 eta AP-1 autobideak kudeatzeaz arduratzen den foru-agentziak Irungo eta Zarauzko ordainleku nagusiak gaitu eta indartuko ditu langileekin, bi autobideetan uztailaren 27tik 31ra bitartean zirkulazioa handituko dela aurreikusita, irteera operazio betean.

Kalkuluen arabera, bost egun horietan 265.000 ibilgailu igaroko dira Irungo ordainlekutik, gehienak Donostiarako noranzkoan. 172.000 Behobiatik etorriko dira eta beste 93.000 Hendararako noranzkoan joango dira. Uztaileko azken bost egunetan, batez beste, egunean 53.000 ibilgailu izatea aurreikusten da. Abuztuko lehen asteburuan ere trafiko nabarmena espero da, 1 eta 4 artean, 197.000 joan-etorriekin, batez besteko 49.000 ibilgailurekin. Bestalde, Zarauzko bidesariak ere fluxu handia izango du: 263.000 mugimendukoa izan daitezke uztailaren 27tik 31ra, eta beste 198.000 abuztuaren lehen lau egunetan.

Zenbaki horiek ikusita, Bidegi Irungo ordainlekuko 14 bideak eta Zarauzko 19 bideak irekita mantentzeko dispositiboa handituko du. Bideek langileak izango dituzte igarotzea arintzeko, edozein gorabehera konpontzeko eta, ahal den neurrian, sor daitezkeen itxaronaldiak saihesteko. Ordainlekuko bideak prest daude Abiatu gailuarekin, Via T-rekin, kreditu- eta zordunketa-txartelekin, telefono eta erloju adimenduekin edo eskudiruz ordainketa onartzeko.

Berritasun gisa, aurreko urteekin alderatuta, maiatzaren amaieratik martxan dago 300 metro inguruko hirugarren erreteko bat, Irungo ordainlekuan, Donostiarako noranzkoan, ordainlekuko zabalgunera sartu aurretik. Bide berriak mugikortasun eta ikuspen hobea ematen die gidariei, eta azkarrago koka daitezke, homogeenago eta hobeto banatuta joateko Donostiarako noranzkoan trafikoei zerbitzua ematen dieten zazpi bide finko eta hiru itzulgarrietako edozeinetara. Orain arte, erabiltzaileek ordainlekuaren erdiko bideak erabiltzeko joera zuten, eta eskuinerago zeudenak



maiztasun txikiagoarekin erabiltzen ziren; horrek auto-ilarak areagotzea eragiten zuen trafikoko gehien zegoen egunetan.

Halaber, Behobia eta Irungo ordainlekuaren artean euskarazko, gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko informazio-panelak jarri dira, eskudirutan ordaintzea erabakitzen duen erabiltzaileak zenbateko zehatza prest izan dezan. Tarifa ere beherantz biribildu da, 2,98 €-tik 2,95 €-ra, peajisten kobrantza eta diru itzulien kudeaketa arintzeko. Tarifa hau uztailearen 19tik irailaren 1era egongo da indarrean. Ildo beretik, bidesarien hondartza sartu aurretik, piktogramak dituzten panelak daude, erabiltzaileak dagozkien bideetara bideratzeko, erabiliko duten ordainketa-metodoaren arabera. Neurri horiez guztiez gain, 8 zaintza- eta laguntza-patruila autobideetan zehar ibiliko dira etengabe, gorabehera konponbidea eta laguntza emateko.


Gogoratu behar da Gipuzkoa dela Frantziatik eta Europa erdialdetik datozen ibilgailuak penintsularen hegoaldera, Portugalera edo Afrikako iparraldera doazen tokietako bat, Espainia eta Maroko artean aktibatutako itsasarte igarotzeko operazioarekin. Bestea Gironako La Jonquera da.

Foru agentziak gogorarazi duenez, Pariseko joko olimpikoak direla-eta Biriatur egin daitezkeen segurtasun kontrolek eragina izan dezakete Frantziarako joan-etorrietan. Gomendatzen da nortasun-txartela edo pasaporte eskura izatea eta Eusko Jaurlaritzaren Trafikoko web orrian (www.trafikoa.eus), X-n (@trafikoaEJGV) eta 0 telefonoan informatuta egotea.

Zarautz, 2024/07/25

Se prevé que 265.000 vehículos pasen por el peaje de Irún entre el 27 y el 31 de julio

Todas las vías de los peajes de Irún y Zarautz estarán habilitadas para minimizar las posibles retenciones



Bidegi, la agencia foral encargada de gestionar la AP-8 y la AP-1 habilitará y reforzará con personal las vías de los peajes troncales de Irún y Zarautz en previsión del aumento de tráfico que se registrará en las dos autopistas entre el 27 y el 31 de julio en plena operación salida.

Según las estimaciones que se barajan, durante esos cinco días, el peaje de Irún registrará el paso de 265.000 vehículos, la mayoría en dirección Donostia-San Sebastián. 172.000 llegarán provenientes de Behobia y otros 93.000 circularán en sentido Hendaia. Se prevé una media de 53.000 vehículos durante los últimos cinco días de julio. También se espera un notable tráfico en el primer fin de semana de agosto entre el 1 y el 4 con el tránsito de otros 197.000 con una media de 49.000. Por otro lado, el peaje de Zarautz contabilizará también un flujo elevado que puede alcanzar los 263.000 movimientos entre el 27 y el 31 de julio y otros 198.000 en los cuatro primeros días de agosto.

A la vista de estos números, Bidegi incrementará el dispositivo para mantener abiertas las 14 vías del peaje de Irún y las 19 de Zarautz. Las vías contarán con personal para agilizar el paso, resolver al momento cualquier eventualidad y evitar, en la medida de lo posible, los tiempos de espera que se puedan generar. Los pasos están habilitados para aceptar el pago mediante el dispositivo Abiatu, Vía T, tarjetas de crédito y débito, teléfonos y relojes inteligentes o en metálico.

Como novedad respecto a años anteriores, desde finales de mayo está plenamente operativo un tercer carril de unos 300 metros en el tramo previo al acceso a la playa de vías del peaje central de Irún en sentido Donostia. La nueva vía permite una mejor movilidad y visibilidad para los conductores que pueden posicionarse con más antelación para dirigirse de modo más homogéneo y mejor repartido a cualquiera de las siete vías fijas y tres reversibles que dan servicio a los tráficos en sentido Donostia. Hasta ahora los usuarios tendían a utilizar las vías centrales del peaje troncal y las ubicadas más a la derecha eran usadas con menor frecuencia lo que provocaba un aumento de las retenciones durante las fechas de mayor afluencia de tráfico.



Asimismo, se han instalado entre Behobia y el peaje de Irun paneles informativos en euskera, castellano, francés e inglés con la tarifa para que el usuario que opte por pagar en metálico pueda tener preparado el importe exacto. También la tarifa se ha redondeado a la baja, de 2,98€ a 2,95€, para agilizar el cobro y la gestión de las vueltas por parte de los peajistas. Esta tarifa está en vigor del 19 de julio al 1 de septiembre. En esta misma línea, previa a la entrada de la playa de los peajes hay paneles con pictogramas para dirigir a las personas usuarias a las vías correspondientes en función del método de pago que piensen utilizar. Además de todas estas medidas, 8 patrulleras de vigilancia y asistencia estarán recorriendo permanentemente las autopistas para solventar y auxiliar en las incidencias.

Hay que recordar que Gipuzkoa es uno de los puntos, por donde circulan los vehículos que provenientes de Francia y centro Europa se dirigen tanto al sur de la península, Portugal o hacia el norte de África con la operación paso del estrecho activado entre España y Marruecos. El otro es el de La Jonquera en Girona.

La agencia foral recuerda que el flujo hacia Francia puede verse afectado por posibles controles de seguridad en Bariatou con motivo de los juegos olímpicos de París. Se recomienda tener a mano la tarjeta de identidad o el pasaporte en caso de ser requeridos y estar informados en la página web de Tráfico del Gobierno Vasco www.trafikoa.eus, en X, @trafikoaEJGV, y en el teléfono 011.

Zarautz, 2024/07/25